

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Villafria heritik datozen hondakin-ur sanitarioak Bernedoko udal-mugartean isurtzeko baimena (araztegi berria)

Espediente-zenbakia: VDP-A-2020-0012.

Eskatzailea: Villafriako Administrazio Batzarra.

Villafiako Administrazio Batzarrak baimena eskatu du hondakin-urak Bernedoko udalerrian isurtzeko, instalatutako arazketa-sistemaren bidez tratatzeko. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hiru egun balioduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea kalea 9, 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 22a

Ur-probetxamenduen arduraduna
AITOR BELDARRAIN URIONDO